

ANEXO I

ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAREN EGOKITZAPENA

Urteko/ikasturteko programazio didaktikoaren egokitzapena *Adaptación de la Programación didáctica anual/de curso*

ikastetxea: <i>centro:</i>	ABADIÑO BHI	kodea: <i>código:</i>	015071
etapa: <i>etapa:</i>	DBH	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	4. maila
irakasgaia: <i>materia:</i>	Euskal Hizkuntza eta Literatura		
DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIA	Euskal Hizkuntza -eta Literatura- komunikaziorako konpetentzia		
DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIA ELKARTUAK <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	Bego Urlezaga	ikasturtea: <i>curso:</i>	2019-2020

Zeharkako konpetentziak / *Competencias transversales:*

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia
3. Elkarbizitzarako konpetentzia
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia
5. Izaten ikasteko konpetentzia

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
<ol style="list-style-type: none"> 1. Hizkuntzaren zenbait erabilera-eremutan sortutako ahozko, idatzizko eta ikus- entzunezko diskurtsoak ulertzea, bai eta haien edukia nahiz forma modu kritikoan interpretatzea ere, zenbait motatako komunikazio-egoerei aurre egiteko. (HLK, HHK, IPK) 2. Bai ahoz eta bai idatziz modu txukun, koherente eta zuzenean espresatzea eta interaktuatzea, eta horretan, errespetua, kooperazioa eta espiritu kritikoa hartzea oinarri, zenbait 	<ol style="list-style-type: none"> 1. (1 eta 2. Irizpidea) Hainbat euskarritan dauden ahozko zein idatzitako testuak ulertzea eta interpretatzea, hedabideen eta ikaskuntzaren arlokoak, batik bat azalpen- eta argudio-testuak, zentzu orokorraz ohartzuz, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiziz eta informaziorik eta daturik garrantzitsuenak hautatuz, proposatutako helburuari begira. (Hel.1,3,4) 2. (3 eta 5. Irizpidea) Planifikatu ondoren, idatzizko testuak sortzea, paperean nahiz digitalean, gai sozial,

komunikazio-premiari modu eraginkorren erantzuteko. (HLK, HHK, IPK, EK, IIK)

3. Modu autonomoan gogoeta egitea hizkuntzen sistemei buruz, eta haien erabilera-arauek aplikatzea testuinguruan, testuan, perpausean eta hitzean, bai eta testuak ulertzeko eta sortzeko prozesuetan ere, erabilera egokia, koherentea eta zuzena izan dadin, eta transferentziak positiboak izan daitezten. (HLK, HHK, IPK, EEK, IIK)

4. Norberak hautatutako idatzizko, ahozko nahiz ikus-entzunezko literatura-testu erreferentziazko gozatzea, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua ulertzeko eta sentsibilitate estetikoan aurrera egiteko. (HLK, HHK, EEK, IIK)

5. Literaturako generoen, etapen eta obra nagusien oinarrizko konbentzioen ezagueraz baliatzea, era horretan literatura-testuak modu partekatuan ulertzeko, literatura- ondarearen bidez esperientzia indibiduala eta kolektiboa sinbolizatzeke, eta norberaren kultura-nortasuna eraikitzeke. (HLK, HHK, IPK, EK, EEK, IIK)

6. Gure errealitate elebiduna eta eleaniztasuna nahiz kultura-aniztasuna ezagutu, interpretatu eta balioestea, soziolinguistikaren oinarrizko ezagueren bidez, era horretan jarrera positiboa izateko hizkuntzen eta kulturen aniztasunarekiko, hizkuntzekiko jarrera enpatikoak eta asertiboak sustatzeko, eta euskara erabiltzeko. (HLK, HHK, EK, EEK, IIK)

7. IKTak modu kritiko eta autonomoan erabiltzea, informazioa eskuratu, komunikatu eta lankidetzan jarduteko. (HLK, HHK, IPK, EK, IIK)

8. Norberaren ikaskuntza-prozesuez gogoeta egitea, beste hizkuntzetan eta ikasgaietan eskuratutako komunikazio-ezaguerak eta -estrategiak transferitzeko, eta norberak konfiantza erregulatu ahal izateko hizkuntza-

politiko edo kulturei buruzkoak, ikasleen interesekoak, ikus-entzunezko baliabideen eta IKTen laguntzaz, kontuan hartuz komunikazio-egoera, eta egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun txukun batez. (Hel.1,2,3,7,8)

3. (4. **Irizpidea**) Modu aktiboan eta egokian parte hartzea ikaskuntzako eta gizarteko ahozko harremanetan, bai eta interes sozial, politiko edo kultureko eztabaidetan ere, elkarlanerako jarrera positiboarekin. (Hel.1,2,3,8)

4. (6. **Irizpidea**) Sistema linguistikoaz eta haren erabilera-arauez gogoeta egitea, eta jakintza horiek erabiltzea, ulermen-arazoak konpontzeko ez ezik testu eta berrikuspen hobeak egiteko. (Hel.1,2,3,8)

5. (7. **Irizpidea**) Oinarrizko hizkuntza-terminologia ezagutzea eta erabiltzea hizkuntzari buruz gogoeta egiteko. (Hel.1,2,3,8)

6. (8. eta 10. **Irizpidea**) Euskal Literaturaren XX. mendera arteko eta Espainiar Literaturaren XVIII. mendetik gaur egunera arteko testu osoak edo pasarteak ulertzea, denen artean irakurrita eta entzunda, eta iritsi pertsonala ematea, oinarrizko literatura-ezaguerak erabiliz; laginik garrantzitsuenak ezagutzea, literatura-testuak hobeto ulertzeko eta norberaren kultura aberasteko. (Hel. 4,5)

7. (9. **Irizpidea**) Literatura asmoko testuak sortzea, ahozkoak, idatzizkoak nahiz ikus-entzunezkoak, hainbat generotakoak, sormena sustatzeko teknikak erabiliz, eredu gogoetan eta azterketan oinarrituta. (Hel.1,2,3,4,5,7,8)

8. (11. **Irizpidea**) Irakurtzeko ohitura garatzea, eta literatura gozamen-iturritzat hartzea, mundua, kultura eta hizkuntza ezagutzeko modutzat, eta nortasun pertsonala, kulturala nahiz soziala eraikitzeke eratzat. (Hel. 4,5,6)

9. (12. **Irizpidea**) Hizkuntza-aniztasuna kritikoki interpretatzea eta balioestea, oinarrizko ezaguerak soziolinguistikoak erabiliz. (Hel.6)

10. (13. **Irizpidea**) Hizkuntza-ohitura nahiz -jokaera asertiboak izatea, bai eta euskara erabiltzeko jarrera proaktiboa eta

<p>ikasketak. (IIK, IPK)</p>	<p>kooperatiboa testuinguru eleaniztunetan. (Hel.6)</p> <p>11. (14. Irizpidea) Informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea eskolako jardueretan informazioa bilatu, hautatu, kudeatu eta komunikatzeko. (Hel.7)</p> <p>(15. Irizpidea) Ikasleak bere hizkuntza-ikaskuntzaz gogoeta egitea, bere ikasteko gaitasunean ^Lkonfiantzarekin, autorregulazioa sustatzeko. (Hel.8)</p>
------------------------------	--

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

1.Ebaluazioa:

Testu liburua: 1-4 unitateak

KOMUNIKAZIOA: Mintzatu, entzun, irakurri eta idatzi.

Testu-tipologiak: Iritzi-artikulua, albistea.

Arazo-egoera: Euskara eta teknologia berriak bidelagun

GRAMATIKA: Adjetiboa, adberbioa, galdegaia; izen motak, osagarri zuzena eta zehar osagarria; juntadura: alborakuntza; izenordain arruntak eta indartuak; aditz jokatugabeak; juntadura: Juntagailu bidez; izenordain zehatzugabeak; aditz-izena; perpaus osagarriak.

ADITZA: Indikatiboa eta Baldintza I (Errepasoa)

LEXIKOA: Hitz motak; izenak sortzen dituzten atzizkiak; onomatopeiak; konnotazioa eta denotazioa; sinonimia eta antonimia; izenondoak sortzen dituzten atzizkiak; polisemia; aditzak sortzen dituzten atzizkiak

ORTOGRAFIA: Data eta orduak nola idatzi; zenbakien idazkera I; puntuazioa; loturik ala bereiz; -a itsatsia; H letra

LITERATURA: Erdi Aroa; errenazimentua; barrokoa: sarako eskola.

2. Ebaluazioa:

Testu liburua: 5-8 unitateak

KOMUNIKAZIOA: Mintzatu, entzun, irakurri eta idatzi.

Testu-tipologiak: Gutuna-eskabidea

GRAMATIKA: Izenordain bihurkariak; aditz jokatuak; moduzko perpausak; determinatzaile mugatzaileak; aditz trinkoak; denborazko perpausak; determinatzaile zenbatzaileak; aditzaren aspektua; kausazko perpausak; determinatzaile zehatzugabeak; ondorio-perpausak.

ADITZA: Baldintza II Ahalera Nor, Nor-Nori.

LEXIKOIA: Adberbioak; hiztegia; arlo semantikoa, arlo lexikoa; kortesiazko esapideak; jatorri atzizkiak eta atzizki graduatzaileak; aurrizkiak eta atzizkiak; zabalkuntza semantikoa; berrezarpen lexikala.

ORTOGRAFIA: txistukariak; bait- partikula; zenbakien idazkera; maileguen idazkera, siglak eta laburdurak.

LITERATURA: Ilustrazioa; erromantizismoa; errealismoa eta kostunbrismoa; XX.mendea: abangoardiak eta euskal pizkundea.

3. Ebaluazioa EGOKITZAPENA

Egungo egoera dela eta, ebaluazioaren gutxieneko helburuak eta edukiak moldatu ditugu eta horrelaxe landuko dira:

- Ikasturtea bukatu arte, 8., 9. eta 10. unitateekin jarraituko dugu lanean online saioetan (dena gaindituta dutenekin izango da. berreskuratzeko dauden ikasleekin jarraituko den prozedura, beheko oharretan adierazi dugu).
- Aurreko ebaluazioren bat gainditu gabe duten ikasleekin, berreskuratzeko aukera izan dezaten, "Ariketategia" liburuko eranskinean dauden birpasorako fitxak egingo dituzte.
- Udako txostena eta iraileko errepassoa 3.ebaluazio hau sendotzeko izango da. Gainera, hizkuntzetan ikasturte guztia biltzen du azken ebaluazio honek.

EDUKIEN SEKUENTZIA

8. GAIA

- Irakurmena: Esperantoaren bideak
- Determinatzaile zehaztugabeak
- Ondorio-perpauak.
- Ortografia: Maileguak / siglak eta laburdurak
- Literatura: Abangoardiak eta euskal pizkundea.
- Egiten jakin: txiste berriak asmatzea.
- ERE lokailua
- ADITZA: Ahalera: NOR; NOR-NORK; NOR-NORI-NORK

9. GAIA

- Deklinabidea: kasuak
- Konparazio-perpauak
- Lexikoa: maileguak eta kalkuak
- Ortografia: loturik ala bereiz / Adizkien idazkera.
- Literatura: iraultza literarioak.
- Egiten jakin (173 or.) Etorbizuneko hipotesiak azaltzea (Astoarena_Saioa)

10. GAIA

- Deklinabidea: mugagabea
- Helburuzko perpauak
- Lexikoa: Hitz elkartuak / interjezioak
- Ortografia: hitz elkartuen idazkera
- Komunikazioa (199 or.). Dibulgazioa testua
- Literatura: joera berriak literaturan.

UDAKO TXOSTENA ETA IRAILA

Udako txostenean (9. 10. 11. eta 12. Unitateak) berrikusteko eta sakontzeko ariketak landuko dira.

-IRAKURMENAREN ULERMENA

-GRAMATIKA

-IDAZMENA
-LEXIKOA ETA ORTOGRAFIA

Irailean udako lanaren zuzenketa eta hasierako ebaluazioa landuko dira.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

BALIABIDE DIDAKTIKOAK. EGOKITZAPENA

Classroom bitartez ari gara klase ematen. Lanak normalean hor partekatzen ditugu ikasleekin. Bideo- konferentziak egiteko, Google meet edo jit.si baliabideak erabiltzen ari gara.

Udako txostena eskaneatu eta Classroomen jarriko dugu. Beraiek, Drive dokumentu batean egingo dituzte lanak.

Eskolako ikasle guztiek dute aukera online lana egiteko. Arazoren bat egonez gero aurrerago, fotokopiak bidaliko dizkiegu.

BESTE BALIABIDE BATZUK/OTROS RECURSOS

- Testu liburua: ERAGIN. Euskara eta Literatura DBH4, Santillana Zubia. Egiten jakin proiektua. (Gramatika, Literatura, Ortografia eta Ulermena) eta lan kuadernoa.
- Irakasleak sortutako materialak.
- Irakurketa liburuak:
 - Amodioaren gazi-gozoak. Aitor Arana. (1. ebaluazioan)
 - Kale gorrian. Robert Swindells (2. ebaluazioan)
- IKT baliabideak:
 - Web guneak: : www.euskaljakintza.net, www.euskaltzaindia.net, www.bizkaie.com, www.habe.org, www.bertsolari.com, www.euskadi.net, www.hiztegia.net, www.ikasbil.com
 - , www.youtube, www.musikazblai.com

OHARRAK

1go eta 2.ebaluazioko helburu eta edukiak hartuko dira kontuan ikasturtea gainditzeko. Beraz, hauxe izango da ikasleentzako berreskurapen sistema:

Liburutik, maila bakoitzean 2. ebaluaketaraino finkatuta geneuzkan helburuak izango dira, gai horien errepasso ariketak, hemendik eta kurtso amaierara egiteko.

- ARIKETATEGIA (1,2,3,4,5,6 eta 7. UNITATEAK).
- IRAKURKETAREN ULERMENA LANTZEKO ARIKETAK.
- IDAZLANTXO LABURRAK
- GAITASUNAK LANTZEKO TXOSTENA.

Momentuz ez dakigu aurrez aurreko azterketak egiteko aukerarik izango dugun ala ez, beraz ez dugu aukera hau baztertu ikasle batzuen egoerak horrela eskatzen badu.

Ohiko deialdian gaindituko ez balute, ezohiko deialdian aukera izango dute gainditzeko.

<p>EBALUAZIO-TRESNAK EGOKITZAPENA</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Klasean konektatzea ● Testu liburuaren ariketak eta Classroomen bidalitako lanen kontrola. ● Gaiarekin lotutako idazlanak ● Unitate bakoitzeko online froga <p>Irailaren bukaerako froga (hasierako ebaluazioa).</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK EGOKITZAPENA</p> <ul style="list-style-type: none"> ● 1go eta 2. ebaluazioko notak izango du pisu gehien. ● 3. ebaluazioko lanak (konektatzea, lanak egitea, epean entregatzea, kalitatea...) eta frogak ondo lantzeak batz-besteke nota hori puntu batean igotzeko balioko du. ● Hala ere, 1go eta 2.ebaluazioko notan eragina izan dezake ere, 3.ebaluazioan lan gutxi egiteak, klaseetara ez konektatzeak... justifikazio gabe. Honek <u>puntu bat jeistea</u> ahalbideratuko du (bost batetik jeisten ez den heinean). ● Berreskurapenak gairatzen duten ikasleek 5 kalifikazioa izango dute.

PENDIENTEAK / EGOKITZAPENA

Ikuskaritzaren informazioaren zain gauden bitartean, momentuz, ezin izango dugu modu presentzian azterketarik egin. Beti bezala, landu dituzten txostenen inguruko froga bat izango da.

Bestalde, zentzura bueltatzeko aukerarik ez badago, froga era digitalean egingo da, txostenetako edukiak, hau da, aurreko ikasturteko edukiak, bereganatu diren edo ez ziurtatu ahal izateko.

Froga hauek formatu ezberdinetan egin ahalko dira:

-AURREZ-AURREKO BIDEO DEIA: Landutako ariketen galdera/azalpenen bidez. Ikaslearen ahozko adierazpena baloratzeko.

-IKASGELA: Gai jakin baten idatzizko testuen bidez, ikaslearen idatzizko adierazpena baloratzeko.